

# Kaiixo

2012 MAIATZA / 110. ALEA

*urretxu!*

7. orrian

## NAZIOARTEKO LANKIDETZAN ARITZEKO LAGUNTZAK

Herriko borondatezko

lankideei zuzendutako bekak

2. orrian

### TOKA, BELAUNALDI BERRIEN BULTZADA BEHAR DUEN GURE HERRI KIROLA

Aurten ez da San Joanetako txapelketa ospatuko

5. orrian

### UDARAKO KIROL ES- KAINZA FRESKAGARRIA

Pagoetako Udal igerilekua ekainaren 16an irekiko da

10. orrian

### IRIMOKO TOPONIMIA ETA KULTUR ONDAREA BERRESKURATUZ

40 lagun auzolanean aritu dira toponimia harriak jartzen

**Kaixo urretxu!**

Urretxuko Udal Aldizkaria



**Kaixo urretxu !**

# Toka, belaunaldi berrien bultzada behar duen gure herri kirola

**Antolakuntzaren ardura hartzeko boluntarioen faltan, aurten ez da 1991. urtetik aurrera ia bi mila parte hartzaile izan dituen San Joaneko toka txapelketarik izango**

San Juan egunez Santa Barbarara igotzen direnek, azken urteetan ia 2000 parte hartzaile -1991. urtetik 1958 Jesus Pascualek bildutako datuen arabera- izan dituen ekitaldi bat botako dute faltan, toka txapelketa. Gizarteko beste hainbat alorretan gertatzen den bezala, ez da azken urteetan egindako lan eskerga bere gain hartu nahi duen belaunaldi berririk azaldu eta antolaketa lanetan erreleborik agertzen ez den bitartean, ekainaren 24an ez da toka txapelketarik izango. Iazko txapelketan, esaterako, 107 lagunek hartu zuten parte txapelketan, tartean 16 emakume zeudelarik.

Gauza askorekin gertatu ohi den bezala, galtzen ditugunean ematen diegu dauz-

kagun gauzei benetan daukaten balorea eta ziurrenik, honekin ere antzeko zer-bait gertatuko zaigu, baina urteek ez dute barkatzen eta orain arte antolaketa lanetan aritu direnak ez daude halako ardurak, ez guztiak behintzat, euren biz-



**Kaixo urretxu !**

2012 MAIATZA / 110. ALEA

**Ale honetako laguntzaileak:** Jon Altolagirre, Jose Luis Garmendia, Josemi Lasa, Jesus Pascual, Miguel Cristobal, Josune Mujika eta Le-kaio Kultur elkarteak.

**Argazkiak:** Luis Angel Téllez, Jose Luis Garmendia, Jesús Pascual, Josune Mujika eta Aresti.

**Lege Gordailua:** SS/678/93

**Konposaketa eta diseinua:** Ur Artola Probanza

**Koordinatzailea:** Jon Ormazabal

**Inprimaketa:** ANTZA **Tirada:** 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldikarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net) helbide elektronikoa.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net).

karren gain hartzeko moduan. «*Handik pasa eta tiraldi bat egitea bururutzen zaiolak ez daki aurretik zenbat lan egin behar den halako bat antolatzeko. Lehenengo sariak enkargatu eta horien bila joan beharra dago Donostiara, Udalari behar ditugun elementuak eskatu (hesiak, mahaiak...) dena antolatu eta gero, San Juan egun ia guztia, beste guztiak festaz gozatzeko ari direnean, bertan eman behar duzu. Urteren batean, goizeko hamarretan hasi eta gaueko hamar arte ere egon izan gara, korrika eta presaka bazkaltzeko atsedenditxo batekin», azaldu zuen Jesus Pascual, azken 20 urteetan antolakuntza lanetan aritutakoak.*

Lanaz harago, txapelketa honek eta tokak berak, gauza on asko eman izan



dizkiela ere nabarmendu dute taldean aritutakoek. «*Urte hauetan guztietan, esan beharra daukat sekula ez dela istilurik egon, inoiz bakarren bati zerbait esan beharra tokatu zaigu, baina ezer garrantzitsurik ez. Barre ederrak ere egin ditugu eta jendearen esker ona jaso ere bai», azaldu zuen Pascualek.*

Anekdotaren bat gogoratzeko eskatuta, momentuan, urte batean parte hartu

zuen haurra etorri zaio gogora. «*Sari asko banatzen genituen eta ume honek sekulako negarrak egin zituen bere saria nahi zuelako. Ez zegoen hura kontsolatzerik eta azkenean gainean neraman zerbait eman behar izan genion, ez dakit ordulari bat edo antzeko zer eman genion». Urteroterero Elgetatik bere semeekin etortzen den emakumearen kasua ere maitasunez gogoratzen du Pascualek.*

Umeek oso gustukoa omen dute toka eta gauzak horrela, azken urteetan haurrentzako txapelketa bat ere antolatu behar izan zuten. «*Egun guztia pasako lukete umeek tokan eta azkenean mugatu egin behar izan genuen». Ostean, ordea, eten moduko bat ematen da, azken hiru txapelketetan ez baitu jubenil mailako*



inork izenik eman eta saria kendu behar izan zuten. Baina San Juan eguneko txapelketaz gain, lan handia egin izan dute, Ino Ugarteburu eta Jesus Pascual buru, herriko tokazaleek.

Pascualek gogoratzen duenez, «*1986. urtean edo hasi ginen hemengo batzuk tokan jokatzen, herrialde mailako txapelketetara ere joaten ginen, Segura, Zegama eta halako inguruko herrietara».*

## Kaixo urretxu !

*«1991.urtean, Ino Ugartebururen bidez, Santa Isabeletan txapelketa bat antolatzeko aukera sortu zen, ados jarri ginen Zumarragako udalarekin eta uztailaren bian txapelketa egitekotan ginen. Gauza da, garai hartan nire lagun Peio Akizu Urretxuko kultur zinegotzia zela eta Urretxun ere antolatzeko eskatu zigun. San Juanak astebete lehenago zirenez, antolatu genuen lehena San Joanetakoa izan zen eta hortik aurrera 20 urtez antolatu izan dugu», gogoratzen du Pascualek.*

Herriko txapelketa huez gain, Euskadiko txapelketa bailaran bost aldiz ere antolatu izan zuten, azkena 2004. urtean, Etxeberriko tokalekua inauguratzeko, inoiz izan den binakako txapelketa bakarra. Antolaketa lanez gain, 1996. ur-



tean Pascual berak, Ino Ugarteburu, Jose Antonio Ugarteburu, Legazpiko Juan Mari Iñurritegi eta Segurako Antonio Agirrek lehiaketetan aurkezteko taldea osatu zuten; Urretxuko Toka Elkarte. Handik urte batzuetara, Zumarraga ere batu zen. Eraitza onak ere eskuratu zituzten, hiru aldiz lortu baitzituten Euskadiko txapela.

*Gainera, tarte horretan, Agirre bolo eta tokako federakuntzako lehendakari izan zen eta bere agintaldian egindakoen artean, tokaren araudi ofiziala idatzi izana nabarmendu behar da 1997. urtean. «Aurretik zegoena 1890 ingurukoa zen, horixe zen zegoen bakarra baina oso zaharkitua geratua zegoen».*

*Urteen eta bizitzaren gorabeherak gorabehera, taldea desegin egin zen «nahiz eta lagun handiak izaten jarraitzen dugun. Urtean hainbatetan elkartu eta bazkariak ere egiten ditugu».*

Orokorrean ere tokaren osasuna ere antzekoa omen da. Euskal Herri osoan Gipuzkoan bakarrik jokatzen den kirol bat da eta Donostia-Errenteria inguruan



*omen du zaleturik gehien. «Taldeak badaude, baina horietako %90a jubilatutako jendea da. Badago gazteren bat, baina dagoen tokalaririk onenak 78 urte izango ditu, Errenterian bizi den galiziar bat da».*

Kirol guztietan bezala, arrakastaren giltza eskainitako denboran omen dago. *«Onena den gizon horrek egunean ia 400 tiraldi egiten ditu».*

# Aurtengo uda ere, Urretxun kirolaz blai

**Pagoetako udal igerilekuak ekainaren 16an irekiko ditu ateak eta irailaren 16a arte egongo da zabalik. Gainera, uztailan gustu guztietarako ikastaroak emango dira**

Urtero bezala, uda kirolaz blai datorkigu Urretxura. Egun hauetako berotik ihes egiteko, Udalak Pagoetako igerilekuko zerbitzua jarriko du martxan laster. 2012. urteko denboraldia ekainaren 16tik irailaren 16ra luzatuko da.

Kirol Txartelak Aldiri Kiroldegirako eta Pagoeta igerilekurako balio du eta abonatu izan nahi dutenek, udal kiroldegian eman beharko dute izena, honako ordu-tegian: 9.00-13.00 eta 17.00-20.00 bitartean.

Informazio gehiagorako 943038092 telefonora dei dezakete.

Txartela ateratzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Karnet tamainako argazkia
- NAN-a
- Kontu korrante zenbakia (20 digitu)
- Norberaren egoeraren egiaztagiria (langabeek lan-eskatzaille txartela, ikasle-txartela edo edo jubilatu egoeraren justifikagiria).

Baina igerilekuaz harago, udako programak era guztietako kirol ikastaro aukera zabala eskaintzen du uztailan zehar, haur zein helduentzako. Gazteenek esku pilota bezalako betiko kirolak edo gaz-

tezipinning bezalako berritzailegoen artean aukeratua ahal izango dute eta helduek hamar aukera desberdinen artean hobekien egokitzen zaiena aukeratu ahal izango dute.

## KIROL TXARTELA: ABONUAK / ABONOS

3-18 urte bitartekoak  
*De 3-18 años* 50,00 €

Ikasle eta langabetuak  
*Estudiantes y parados* 50,00 €

Jubilatu eta pentsiodunak  
*Jubilados y pensionistas* 50,00 €

18 urtetik gorakoak  
*De más de 18 años* 100,00 €

Familiarra  
*Familiar* 150,00 €

Familia unitate berean diru-sarrerarik ez duten kide guztiei egingo zaie abonatu txartela, 23 urtetik beherako seme-alaba kopurua kontuan izan gabe.

*Se expedirá un carnet de abonado a todos los miembros de la misma unidad familiar que no dispongan de ingresos independientemente del número de hijos menores de 23 años.*

## SARRERAK / ENTRADAS

3-18 urte bitartekoak  
*De 3 a 18 años* 2,00 €

18 urtetik gorakoak  
*De más de 18 años* 4,50 €

# UMEAK ETA GAZTEAK. NIÑOS Y JÓVENES.

**Uztailaren 3tik 27ra. Del 3 al 27 de Julio.**

JARDUERA Actividad	Astel. Lunes	Asteaz. Martes	Asteaz. Miérc.	Osteg. Jueves	Ostiral Viernes	HASIERA Inicio	ADINAK Edad	ORDUTEGIA Horario
MULTIKIROLA	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	8-14	9.30 - 11.00
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	8-14	9.30 - 11.00
IRRIKAKETA/PATINAJE	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	8-14	9.30 - 11.00
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	8-14	9.30 - 11.00
ERRAKETA KIROLAK	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	8-14	11.00 - 12.00
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	8-14	11.00 - 12.00
XAKE	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	8-14	11.00 - 12.30
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	8-14	11.00 - 12.30
ESKU PILOTA	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	6-14	11.00 - 12.30
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	6-14	11.00 - 12.30
ERRITMIKA GIMNASIA	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	6-18	11.00 - 12.30
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	6-18	11.00 - 12.30
PIRAGUISMOA	X	X	X	X	X	UZT 2-6 JUL	8-18	9.30 - 11.00
ARTE MARTZIALAK	X		X			UZT 3-27 JUL	8-16	18.00 - 19.00
AEROBIK GAZTE 1	X		X		X	UZT 3-27 JUL	10-18	11.00 - 12.00
GAZTESPINNING 1		X		X		UZT 3-27 JUL	10-18	11.00 - 12.00
MUSKULAZIOA HASTAPENA	X	X	X	X	X	UZT 3-13 JUL	14-18	11.00 - 12.00
	X	X	X	X	X	UZT 16-27 JUL	14-18	11.00 - 12.00

MULTIKIROLAK: Talde kirolak, Mountain Bike, Fresbee, Voley, Floorball

# HELDUAK. ADULTOS.

**Uztailaren 3tik 27ra. Del 3 al 27 de Julio.**

JARDUERA Actividad	Astel. Lunes	Asteaz. Martes	Asteaz. Miérc.	Osteg. Jueves	Ostiral Viernes	HASIERA Inicio	ORDUTEGIA Horario
YOGA		X		X		UZT 3-27 JUL	9.30 - 11.00
		X		X			19.00 - 20.30
SPINNING	X		X			UZT 3-27 JUL	19.00 - 20.00
		X		X			9.00 - 10.00
		X		X			19.00 - 20.00
		X		X			20.00 - 21.00
PILATES	X		X		X	UZT 3-27 JUL	10.00 - 11.00
	X		X		X		9.00 - 10.00
	X		X		X		10.00 - 11.00
		X		X			18.00 - 19.00
GIM. MANTENIMIENTO	X		X		X	UZT 3-27 JUL	9.00 - 10.00
	X		X		X		18.00 - 19.00
ZIKLO-POWER	X		X			UZT 3-27 JUL	19.30 - 21.00
POWER GAP		X		X		UZT 3-27 JUL	20.00 - 21.00
TRX		X		X		UZT 3-27 JUL	9.00 - 10.00
ARTE MARTZIALAK	X		X			UZT 3-27 JUL	17.00 - 18.00
PIRAGUISMOA	X	X	X	X	X	UZT 2-6 JUL	19.00 - 20.30
IRRIKAKETA/PATINAJE	X		X		X	UZT 3-27 JUL	9.30 - 11.00
		X		X			11.00 - 12.00
		X		X			17.00 - 18.00

Informazioa eta izen emateak : Aldiri Kiroldegia Tf: 943 038092

# Nazioarteko lankidetzan aritzeko borondatezko lankideei laguntzak

**Urretxuko Udalak garapen bidean dauden herrialdeetarako 39.000 euro bideratuko ditu aurten, horietatik %8a nazioarteko elkartasunean ariko diren herritarrentzat eskainitako beka edo laguntzetara bideratuko da**

Garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzera bideratutako laguntzen artean, bada nahiko ezezaguna den partida bat; nazioarteko elkartasunean ariko diren herritarrena hain zuzen ere.

Beka honen bidez, Urretxuko udalak nazioarteko elkartasuna bultzatzera atzerriara joaten diren herritarrei euren proiektuak finantziatzen laguntzen die.

2012. urteko laguntzetarako proiektuak aurkezteko epea ekainaren 13ra arte izango da zabalik.

**Josune Mujika, zailtasunak dituzten umeen eskolaratzean lanean «Betiereko udaberriaren hirian»**

Duela hiru urte, Josune Mujikak bere bizitzako esperientziarik aberasgarrienetako bat bizi izan zuen. Eusko Jaurlaritzak antolatutako proiektu baten baitan, hiru hilabete eman zituen Perun, arazoak zituzten haurren eskolaratze eta sozializatze lanetan. «*Ordura arte, sekula ez nuen inolako harremanik izan Gober-*

*nuz kanpoko erakundeekin (GKE) edo kooperazio elkarteekin. Deialdia ikusi, interesgarria iruditu eta izena eman nuen. Jaurlaritzak GKE desberdinekin hitzarmenak zituen, perfil zehatzetako pertsonak aukeratu eta bidaia eta egonaldia bere kargu hartzen ditu».*

Bere magisteritza berezia eta goi mailako Zeinu Hizkutzako Itzultzaile titulua-



## Kaixo urretxu !

rekin Perura joatea egokitu zitzaion, beste 30 gazterekin. «*Lehenengo Trujillo-ra joan nintzen, Peruko bigarren hiririk handiena, eskola berezi batera. Gaur egun integrazioa, inklusioa eta halako teknikak eramaten dira gure inguruan baina han, haur guztiak, daukaten ezgaitasuna daukatela, zentro batean batera daude. Egon daitezke gutxi batzuk eskola arruntetan, gainontzeko ikasleekin, baina eskolaratuak dauden gehienak zentro berezietan egoten dira, garai batean hemen bezala, erdi ezkutuan*».

Inguruan bizi zen errealtatearekin konparatuta, eskolak nahiko baliabide dui-nak zituen eta bertan nahikoa lan polita egiten zutela uste du Josune Mujikak. «*Goizetan eskola horretan egoten nintzen, agian hamabost ikasle egoten ziren irakasle bakararekin, agian lau autista ziren, bik paralisia zuten, down sindromea beste lauk. Ez zeuden mailakatuta gaitasun edo ezagutzen arabera, denak batera zeuden*».

Laster, arratsaldeetan parte hartzeko beste proiektu bat eskaini zioten eta es-





kolaz kanpoko orduetan, ume horiekin lanean aritu zen. «*Kartoizko lau pareten artean sartuta, bi irakasle haur hauei etxeko lanekin lagundu eta bestelako ekin-tzaren bat egiten saiatzen ziren, zailtasu-netan laguntzea eta sozializatzen saiatzea zen asmoa. Zonaldea nahikoa txiroa zen eta guraso askok ez zituzten umeak eskolara eramaten. Gutxi gora behera, identifi-katuta zituzten haur horiek eta etxez-etxe aritu ginen, bakoitzaren errealitatea eza-gutu eta haur hauek eskolara joan zitezen gurasoak konbentzitu nahian*».

Lan hauek amaituta, azken hilabeteen, erizain bat lagun zuela, mendian galdu-tako herrixka batean izan zen Josune Mujika. «*Lau etxe txiki zituen herrixkara iristeko bide luze bat egin behar izan ge-nuen, autobusean lehenengo eta zaldiz gero*». Bertatik eskola oso urrun geratzen zen, joan-etorrian haurrek denbora piloa behar izaten zuten eta eskolaratzea ez zen ematen. «*Gu, berez, eskolaratze hori bultzatzera joan ginen eta nirekin joan zen erizaina lehen sorospen teknika batzuk eta higie-ne arau batzuk erakustera. Baina hara heldutakoan, berehala ohartu nin-tzen gure diskurtsuak ez zuela bat egiten hango errealitatearekin. Nola esango diot umeari lau ordu emateko eskolara joaten, gero han irakaslea joan ez izana gerta ba-daiteke? "Zibilizazioa" hamar ordutara ge-ratzen zitzaien, %90a ez da sekula herrixkatik irten, beraien bizitza etxetik so-rora eta sorotik etxera denean, hortaz bizi denari nola esan irakurtzeko edo eskolara joatea oso garrantzitsua dela, bizimodua aurrera ateratzeko balio ez badio? Hori moldatu behar izan genuen. Hango errea-litatea ikusi, bizi eta hartara moldatu behar izan genuen*».

Bertan egindako ekarpenaz harago, Jo-sune Mujikari errealitate berriak ezagutu eta kooperazioaren inguruan dagoen eztabaidaz hausnartzeko balio izan dio Peruko egonaldiak. «*Gertatu zitzaidana da, programa hauek askotan guretzat di-rela gehiago hango jendearentzat baino*».

Gainera, berari erakunde erlijioso bate-kin lanean aritzea egokitu zitzaion, moja komentu batean egon zen eta bertan zenbait kontraesan ere topatu zituen. «*Han beste errealitate oso desberdin bate-kin egiten duzu topo, gero konturatzen zara han zure alea eman dezakezula, noski, oso proiektu oso onak daude, baina baita ez horren onak ere. Dirua eramaten da baina nola eta zertarako? Nik nire za-lantzak ditut. Proiektu hauek interesga-rriak iruditzen zaizkit eta horregatik, edozeini gomendatzen diot parte hartzea baina gehiago esperientzi pertsonal bat bezala*».

«*Kontu handia izan behar da egiten dena nola egin behar den. Ezin zara Robin Hood bazina bezala joan. Lan handia egiten duten proiektuak daude, baina Peruko ka-suan, esaterako, iruditzen zitzaidan, bertakoei euren ekimenak izatera bultzatu baino, laguntzen zain itxoitera bideratzen zituztela*».

Arazoak arazo eta kontraesanak kon-traesan, zalantzarik gabe, Udalak es-kaintzen duen aukera hau aprobetxatzera animatzen ditu urre-txuarrak. «*Laguntzeko, errealitate arras desberdinak bizi eta sekulako esperientzia bizitzeko modua da. Nere aholkua joate-koa da*».



**Lekaio**  
Kultur Elkartea

# Irimo inguruko toponimia eta kultur ondarea auzolanean berreskuratuz

40 bat boluntariok hartu dute parte toponimia harriak jartzen eta Iturraundi edo Lizarriturri inguruetan egindako konponketa lanetan

Beste garai bateko zerbait eman dezakeen arren, auzolanak inoiz baino balio handiagoa du gaur egungo krisialdi honetan. Hala erakutsi dute behintzat, Lekaio Kultur taldearen gidaritzapean, Irimo inguruko toponimo garrantzitsuenak jasotzen dituzten harriak kokatu eta Lizarriturriko txabola, Iturraundiko arketa edota iturria bera konpondu dituzten 40tik gora boluntarioek. Aspaldiko



lan sistema eredugarri hau lagun, gure kultur ondarea berreskurtzeko oso onuragarria izan daitekeen lana burutu dute Irimo inguruetan.

Lan honen guztiaren oinarrian, 1998. urtean, Zintzo Mintzo elkartearen gidaritzapean, Jose Luis Ugartek egindako "Urretxu-Zumarragako toponimia" ikerketa mardulean aurkitzen da.

Halako lanek maiz apalean ahaztuta amaitzeko arrisku handia izaten dute-lako eta toponimo hauek galtzen ari direlako, Lekaio Kultur elkarteak hauek nolabait kaleratzearen beharra ikusi zuen. «Irimo inguru horretan, zaharrenek bere lurretako toponimoak ezagutzen dituzte, baina ez da belaunaldien arteko partekatzerik eman eta aldamenekoen lurretakoak ere inork gutxi jakin izaten



*ditu*», azaldu zuen proiektu honetako partaideetako batek.

Gauzak horrela, kaleetan egin izan denaren antzera, esaterako Errota kaleari toponimoak eman dio izena, Irimo inguruko puntu estrategikoenak hautatu, hogeita hamarren bat, eta bertako toponimoa eta bideak markatzen dituzten harriak kokatu dira. Inondik inora mugarri funtziorik betetzen ez duten harri hauek guztiak lurjabeen baimenarekin jarri dira bide ertze eta bidegurutzeetan eta euren helburua oso garbia da, galtzear dauden izen horiek berreskuratzea eta ezagutaraztea.

Esan beharra dago, hautatu diren bide guztiak oinezkoentzat markatu izan direla, hau da, sekula ez traktore edota 4x4 autoentzat. Bide pribatuak apenas ukitzen dira eta ukitutako gutxi horiek gainera, lehen oinbideak izandakoak dira, esaterako Beaindik Santa Barbara joateko erabiltzen zen bidea.

Ekimenak Goimenen diru-laguntza izan du, baina bere indargunerik garrantzitsuena, toponimo eta gunen berreskuratze lanetan 40 bat herritar

auzolanean jarri izanean datza. Hala ere, tamalez, bizilagunen arteko gaizkiulertu baten erruz edo, hauetariko harri bat bere lekutik atera eta bidezidor batera bota zuen norbaitek. Oinezkoarentzat informazio iturri izatea beste helbururik ez duen harria berriz ere bere lekuan jarrita dago.

Euskarri fisikoez gain, toponimia puntu hauek interneteko google maps aplikazioan ere edonoren eskura daude, baita bere argazki, altuera eta GPS koordenadekin, honako helbidean: <http://maps.google.com/maps/ms?ie=UTF8&t=h&source=embed&oe=UTF8&msa=0&msid=207357394900657348310.00049815a33793786ccf1>

Lehen pausu garrantzitsu hau eman ondoren, geratzen da etorkizunerako erronka politik. Esaterako, Irimoren eta Urretxu beraren historiak galtzada zaharra du ardatz, haren inguruan daude kokatuta herriko baserri gehienak eta Iturraundiko ubideak, neberako zuloak... inguruak ematen ditu bai, auzolanaren tresna eraginkorrenekin, kulturegintzan eta ondarearen berreskuratzean sakontzeko aitzakia ederrak.



*Aurten*

# HERRI BAZKARIA KARPAN!



*San Joan egunean*

Erosi zure txartela eta lekua eta  
bazkaria izango duzu karpa barruan

Salgai ekainaren 8tik 20ra

Urretxuko kultur etxean

**Kaixo urretxu!**

Urretxuko Udal Aldizkaria

